



Spray

Paddy Rekalde

Lehendik irakurrita neukan Paddy Rekalderen narrazio- eta ipuin-bilduma bat, gehitxo konbentzitu ez ninduen baina gehitxo ere atsekabetu ez ninduen. Liburu hartako narrazio batzuk gehiago gustatu zitzaizkidan beste batzuk baino. Eta batez ere, haren euskararekin sentitu nintzen nahiko gustura, une deskriptibo zenbaitetan kalitate handia antzematen zitzaizolarik.

Oraingoan, berriz, poesia-liburu honekin, lehen orritik azkenekoraino gozatzea lortu dut. Oro har, Spray liburuan bildutako poema guztiek nahiko inpresio ona eragin didate. Liburu osoan eusten zaio kalitateari; beti egongo da poemaren bat gehiago edo gutxiago gustatuko zaiguna –hori irakurle bakoitzaren arabera izaten da–, baina, oro har, poesia-liburu txukuna da. Eta garrantzitsuena hori da: liburu baten kalitateak gorabehera gehiegi ez izatea. Eta liburu honek ez du gorabehera handirik. Maila on batean hasten da eta denbora osoan ez da maila horretatik jaisten.

Bestalde, hortxe dago Paddy Rekalderen mundu berezia. Eta, bueno, irakurle batzuk beste batzuk baino gehiago edo gutxiago identifikatuko dira mundu horrekin; batzuei erakargarria gertatuko zaie eta beste batzuei ez hainbeste. Niri dagokidanez, liburuan eta egilearen munduan arazorik gabe “sartu naiz”, eta oro har, aurrean jartzen dizkidan erreferentziekin eta ikuspegiekin identifikatzeko ez dut aparteko arazorik izan, nahiz eta ziur aski ni Paddy baino “lasaiagoa”, “turistagoa” izan.

Liburu honekin (eta beste edozeinekin) Kepa Juaristiren “Libreta horiko poemak” egin dudana antzeko irakurketa bat egin nezake. Baina horrek denbora eta neke handiagoak eskatuko lizkidake. Bestalde, horri buruzko gogoeta txiki bat planteatu daiteke: merezi al du poesia-liburua bat *disekzionatzea*? Egin behar al da hori, benetan...? Agian, liburu bat azken zehaztasuneraino ezagutu nahi badugu, bai, bi irakurketa-mota horiek –edo bi baino gehiago– egin beharko genituzke. Baina, hasteko, birekin nahikoa da: lehenik, irakurketa orokor bat; eta gero, liburuaren irakurketa disekzionatu bat, hau da, poemaz poema egina.

Irakurketa orokorra oso garrantzitsua da, liburua bere “dimentsio naturalean” ezagutzeko aukera ematen digulako, hau da, liburua den bezalaxe ezagutzeko aukera ematen digu. Egin behar dugun gauza bakarra erne egotea eta irakurketan arreta biltzea baino ez da, irakurri duguna gustatu zaigun ala ez jakiteko edo, oraindik hobeto, jakiteko nolako jarrera hartzen dugun liburu horrekiko.

Bestalde, irakurketa “disekzionatua” daukagu, poemaz poema egiten dena alegia. Ikuspegi edo dimentsio naturala desagertu egiten da. Pentsa dezagun une batez giza gorputz bat edo intsektu txiki bat mikroskopioan begiratzen dugula, hura bitan ireki edo disekzionatu ondoren. Arazoa zera da: non gelditzen da giza gorputza edo intsektuaren gorputza, behin erraiak aterata eta mikroskopio zientifikoaren ahalmenaren begirada

pean dauzkagunean? Norbaitek esan lezake –arrazoi osoz, puntu jakin bateraino– “giza gorputza eta intsektuarena barrutik zein kanpotik ezagutzeko balio digula”. Bai... arazoa da...: aurrean daukaguna alde zurreratik zer den jakin ezik, zer arraio ote den ez genukeela jakingo. Eta liburu batean “gehiegi” arakutzen dugunean, antzeko zerbait gertatzen dela esango nuke –berez oso baliabide interesgarria, jakingarria eta tentagarria bada ere.

Dena den, “disekzionatzea” ez da poeman “hatza sartzea” edo “muturra sartzea”, hola, besterik gabe (edo auskalo zein asmorekin), baizik eta poema bakoitzarekiko dialektika bat irekitzea, eta hortik aurrera, geure burua hobeto ezagutzen ikasi (“geure burua besteekiko” eta “besteak geurekiko” dimentsioan). Nahiz eta, esan bezala, dialektika hau poemaz poema gauzatzeko denbora behar den, eta zer esanik ez, dialektika horren emaitza idatziz jarri nahi badugu, literatur iruzkin hauetan egin ohi dudana bezala.

Baina kasu honetan ez dut horrelakorik egingo. Izan ere, denbora behar da disekzioa irakurketa guztietan sistematikoki aplikatzeko. Bestalde, hemen jartzen ditudan iruzkinak gogoeta pertsonal batzuk baino ez dira. Ez naiz unibertsitateko irakaslea. Ez dut neure bizitza dedikatzen doktoretza-tesiak idaztera. Gogoko dut naizena izatea: irakurle –agian– abantailatsu bat...

Nolanahi ere, Spray gustatu egin zait. Indarra du, bi aldeetatik eduki ere: hizkuntza aldetik eta gai aldetik. Eta Paddy Rekaldere indarra bala baten modura helarazten zaio poema bakoitzari. Ia beti helburuan (edo nahi zuen helburuan) jotzen duela esan daiteke. Batzuetan, poema bat “goraldi” moduko bat da. Egileak poemen estetika urbanoa lantzen du; pertsona deseginak, jipoituak (baina duinak) eta gertaera latzak jartzen dizkigu aurrean askotan, belaunaldi jakin bat erretratatzeko dutenak –zehatzago esanda, nire belaunaldiaz ari direnak–, belaunaldi piska bat apurtu eta oso borrokazale bat... Belaunaldi jakin batez ari banaiz ere, estetika honek ziur aski bere aztarna uzten jarraituko du geroko belaunaldietan, zeren, azken finean, sugeak azala berritzen du, bai, baina azalberritu ostean zer geratzen da... lehengo suge bera baino?